

La infame Carmen Maura, en uno de sus colofones filosóficos del programa televisivo, ha dicho: "El hombre tiene dos facultades: el poder en los pies y la inteligencia en la cabeza. Cuando el poder se le sube a la cabeza, la inteligencia huye despavorida" (Emisión "Esta noche").

Se está dando en nuestro entorno un proceso político y mental muy característico en torno al poder y la razón, en los últimos 15-20 años. Cuando aquella dictadura, la

razón de los vascos era (se decía) la punta del contrapoder; cuando los poderes reformados se han impuesto, han acaparado la razón para administrarla a su antojo, mientras muchos vascos se agarran al carro del co-poder autonómico, pero teniendo que recurrir continuamente a la razón vasca frente a las imposiciones del poder central; pero es que, en realidad, la relación razón-poder en estos años de reforma se está resolviendo a nivel de los "pode-

res fácticos" y de la "Razón de Estado", en esa zona de los poderes ocultos, míticos, incomprensibles, incontrolables, en que todo tipo de razón es engullido por el poder en aras de la irracional y omnipotente "Razón de Estado".

En esta situación a la razón vasca no le queda más salida que potenciar el contrapoder.

el tópico de la racionalidad (IV)

euskal arrazoa eta erdal boterea

LOAPA dago tartean. Bere izen osoa: Ley Orgánica de Armonización del Proceso Autonómico. Izan aranditsua! Boterearen eta Arrazoiaren kontraesan-zeintu gertatu da.

Urriaren 28ko Deia-n bere artikulua eman zuten José Ramón Scheifer-ek. Oraingoan LOAPAREN inguruan. Martín Villak eta Mario Fernández-ek legeagari buruzko eztabaida telebista egun batzu lehenago izana zuten. Aurreko igandean LOAPAREN kontrako manifestaldia Bilbon gertatu zen.

Arrazionaltasunaren izenean onartu zuten Martín Villak eta Mario Fernández-ek telebistako elkarrizketa, horrelako gatazka. "Arrazoiko eta zentzuko elkarrizketaren bidez konpondu behar bait dira", eta "beharrezkoa da gainera herriak bataren eta bestearen arrazoiak ezagutzeko".

Egia esan, argi handirik ez genuen eztabaida hartatik atera; baina gauza bat gutxienez nabarindu zen nonbait: Martín Villak boterea —indarra— zuela, nahiz eta Estatu-arrazoiak mintzatu, eta Mario Fernández-ek arrazoiak eskatzen zuela, nahiz eta atzean Bilboko manifestaldiaren indarraren —boterearen— esperantziari heldu.

Martín Villak honetara bidu zuen telebistako eztabaida: "En el Parlamento hableremos; allí somos más".

Ba dirudi LOAPA-rekin azken jokodira iritsiak garea, azken herri urteotan —hamabostetan, berdin da— Euskal Herriko jokaleku du Botereak eta Arrazoiak eraman duten dema honetan.

Zuek boterea... baina geuk arrazoi!

Eta Bilboko manifestaldiaren ondoren José Ramón Scheifer-ek Deia-n idatzi zuen: "Ciertamente, en el Parlamento serán más los diputados de UCD y PSOE que los nacionalistas vascos. Tendrán, por eso, más razón". Eta beharrezago: "Es el juego democrático, se dirá. Pero tendrán por eso menos razón (los representantes vascos)? Y las aspiraciones del Pueblo Vasco, serán por eso menos justas?".

Hitz horiek, beste hainbat aldiz entzundakoen oihartzuna iruditu zitzaizkidan. Beste eskaldun batek —Unamunok— Salamancan esandako gogoratu zitzaizkidan berehala: "Venceréis, pero no convencéis". Eta galdu egin genuen orduan.

Geroztik hainbeste horrelako. "Contra la razón no vale la demagogia" titulu handia irakurri nuen

atzo ELA aldizkarian. "Victoria de la razón y derrota de la fuerza" titulu handiagor berria Deia-n.

Euskaldunon historian eta beste-enean, ahuleziaren eta ezinaren, boteretik ezaren dramatismitik irten izan dira horrelako hitzak. Galtzailearen gogoeta eta kontsolazioa. Eta euskaldunok hiru aldiz behintzat atera gara galtzaile botere estalaren kontrako gerran. Agian gu arrazoiarekin gelditu ginen; besteak boterearekin gelditu ziren, seguru.

Nork ez du entzun eta irakurri, behin eta berriro, zein zentzuzkoa izan zen euskal gudari eta agintariaren jokabidea azken gerra zibilan? Eta gerra galdu ondoren, gure Herria arrazoiak bete zegoela uste izateko ahalegin guztiak egin ditugu.

Baina diktadurak zuen boterea: botere osoa. Eta orduan, kontraboterea indartzen saiatzen zirenak, Espainiako herrietan, Europan, munduan, euskaldunoi arrazoiak ezagutzen eta aitortzen ziguten; gu ginen burrukalariak, gu ginen buruz jabetuak. Begirunea eta mirespena meretz zuten gure arrazoiak. Gu losintxurik geunden geure arrazoiarekin. Eta ba zirudien, zein eta biziagoa burruka, zenbat eta gehiago burrukan hilak, gure arrazoiak handituz zijoala.

Haien botere erabatekoaren kontrapuntua zen orduan gure arrazoi handia; eta honen izenean, denok elkarturik, saiatu ginen kontraboterea indartzen, eta botere absolutuaren inperioaren barruan euskal arrazoiaren erreinaren esperantza bizkortzen eta lantzen.

Boteretik ezeean, kontraboterearen lila behintzat. Botere "demokratikoa", arrazoiaren administrazioa. Franco hil zenean, orduko boteredun eta kontraboteredun asko elkartu egin ziren, denen artean botere "erreal" banatzeko asmotan. Banaketa horri Demokrazia deitu zioten. Botere-grinaz betetako zeuden; eta grina hori bidaratzeko, partidu politikoak eta hauteskundeak eratu zituzten. Partidu demokratikoa eta hauteskunde demokratikoa zirela esan zuten. Sindikatu demokratikoa ere eratu zituzten: Ugazabenak eta langileak.

Eta uste izan genuen boterea administraziozko artea zela politika. Eta botere politikoak banatzeko sis-

tema zela demokrazia. Arrazoikoa: gizarteko interes ezberdinak eta kontrakoak bideratzeko eta arrazoiak libre uzteko.

Baina horra Demokraziako boteredun zahar-berriak arrazoiaren administrazioa bideratzeko. Aurrekin arrazoiak jabetu egin dira, beren demokraziaren zurizaitzetatik hartuz: horretarako arrazoiak etxetatu eta hezi egin dute, beren botere "demokratikoa" araber; arrazoiko demokraziaren bidez "boterea domestikatu" beharrean —B. Russell-ek eskatu zuen bezala—, arrazoiak domestikatu dituzte, beren botere "demokratikoa" izenean. Ondoren, arrazoiaren monopolio hartu dute eta horren administrazioa bihurtu dira, beren arrazionaltasunaren betekit batzuri arrazoi apurrik aitortuz, beste batzuri arrazoi izpiak ukatuz, eta herriari —herri boteregabe eta arrazoiagabe horri!— beren arrazoiak banatuz.

Ez dira adibide asko behar, "arrazoiaren administrazioa" horien politika nabarmentzeko. Baina hona hemen bi behintzat: Lemoiz eta OTAN. Erreferendua eskatzen da Lemoizi buruz, herriak berak erabaki dezan; baina ez? Herriak ez ditu ulertzen Lemoizen aldeko eta kontrako arrazoiak; engeriaren arrazoi zaila da herriarentzat; Comisión de Defensa de una costa vasca no nuclear delakoak behin eta berriro eta mila bider eman dituen arrazoiak? Eta Batzorde anuklearek bultzaturiko ekintzak? Eta urteetan eta hainbat bider manifestaldi herriartean erakutsi den errotia? Guzti horiek ez dira arrazoiak. Boteredunok dira arrazoiaren jabe, eta beraiek erakutsiko diote herriari non dagoen. Beraz, ez dago erreferendurik. Erreferendua eskatzen da OTAN buruz... Gogoan edukitzeokoa da Calvo Soteloek erantzun zuena: Ez dago herriaren eskuetan uzerri, herriak aukeraturiko parlamentariak duden erantzukizuna. Jakina: konplexuegia izan OTANen inguruan dauden interesen munda herriarentzat! Herriak aski argirik izan ez, OTAN bezalako arazoaren barruko arrazoiak ulertzeko! Beraz, Parlamentuak —hobe, Gobernuak— erabakiko du eta herriari benetako arrazoiak erakutsiko... Ez dago erreferendurik? Eta euskaldunon boterea? Arrazoiko

demokraziak boterekidetza izatera deitu ditu euskaldunak: arrazionaltasunaren izenean hori ere, Estatu autonomikoa arrazoikoa bait da!

Eta euskaldun askok uste izan du ordua zela boterekidetzan parte hartzeko, eta ez kontraboterean jokatuz jarraitzeko. "Botere mailan: irabaziz joan behar dugu"; "euskal boterea behar dugu". Horra azken urteotan entzun ditugun slogan-takotako batzu.

Botere errealean —benetakoaren— jokoak jokatzen den lekuan egon behar dela eta, eratu dira negoziatioak, egin zaio men Konstituzioari, gorapaitu da Estatuak. Baina ba dirudi sarritan, oraindik ere, euskal arrazoiaren izenean egiten dela guzti hori, euskal boterearen izenean baino gehiago, hona hemen Deia-ko editorialak (azaroak 18an) dioena: "Pensamos que sin vulnerar (erregeak) su papel de ser la primera instalación del Estado, siempre estará dispuesto a facilitar puentes de diálogo entre esta tierra nuestra con un derecho histórico y legal al autogobierno, y aquellos que desde posiciones preeminentes todavía no comprenden nuestras razones y hasta adopten posiciones beligerantes".

Berriro ere euskal arrazoiak kontrajartzen —zaio erdal botereari. Baina arrazoiaren administrazioa bihurtu den botereak ez du kontrabotereari: onartzen, kontrabotereak ez dagoen bitartean, nahiz eta hau irrazionaltasuntzat salatu boterekidetza erain. Garai batean euskal arrazoiaren indarra zen kontrabotereak.

Botere "faktikoa" eta Estatu-arrazoi Baina Franco ondorengor boteredunek botere-ustea besterik ez dute izan. Hala dirudi behintzat. Izan ere arrazoiak administrazio ibili diren bitartean, bestelako "botere faktikoen" mamua sumarazi digute etengabe. Beren botere-grinaren poderioz, benetako boterea —erreal administrazioen zutela uste zutenak, itxurazko boterea —formala besterik ez dutela esku artean kontratu behar izan dute, behin eta berriro ganean jarri zaizkien "tejerotar" guztien aurrean: benetako botere errealean aurrean.

Eta Estatu-arrazoiak aipatu ditugunean, ez dira kontratu —edo agian oso ondo kontratu dira— botere faktikoen ahotatik ari zirela hitzegi-

ten, nahiz eta arrazoi estalaren jabe eta administrazio zirela pentsarazi.

Botere faktikoen eta Estatu-arrazoi elkartzen direnean, berriaz, seinalea da botereak irentsia duela arrazoiak. Agirikoa eta aitortua denean, arrazoiaren menpean dago boterea: kontrolagarria eta ulergarria da. Baina botere formalen azpitik dauden botere faktikoak, ezkutukoak, irrazionalak gertatzen dira, mitikoak eta kontrolaezinak. Horiek gailentzen direnean, edozein arrazoi-modu irentsi egiten dute, Estatu-arrazoiaren irrazionaltasunaren pean. Horrelako boterearen aurrean, arrazoiak ez du lekuri: ihesgaitzen da. Edota gauza bera dena: arrazoi boterearen dogma bihurtzen da; eta boterea absolutismoa hutsa. Izan ere, zera mitiko —jainkoakoa nahiz deabruko— bihurturik, arrazoiarekin batera gizakia bera irentsi egiten du horrelako botereak.

J.L. Aranguren-en artikulua bai daukat begien aurrean: "Irresistibilidad del poder?" (1977ko, El País-ek, urtarrilaren 18an argitaratua): "No tengo simpatía —dio—, por los seres humanos que adolecen de la pasión del Poder. Pero muchísimo más temible que ellos me parece el poder hipostasiado, sustantivado y desencarnado, el Poder con mayúscula, que por todas partes nos acecha y que arrastra a las marionetas que se nos presentan como sus detentadores".

Honetan gaude...Eta euskal boterea zer? Euskal arrazoiak zer? Estatu-arrazoiak bestelako arrazoiak irentsi dituztenean, euskal arrazoiak desarrazoi bihurtzen da, arrazoiagabea, zorakeria... Eta orduan, euskal botereak kontrabotere bihurtu besterik ez dauka, bere arrazoiaren etxea defenditzeko. Aranguren-ekin esango dut: "(...) por poco esperanzadora que sea la partida, no debemos ceder al mito, en definitiva fascista, de la irresistibilidad del Poder. Debemos hacer cuanto esté a nuestro alcance por su desmitificación".

1977an esaten zuten hori Aranguren-ek. Zer esaten ote du orain LOAPAREN eta Tejerotarren aurrean? Nere aldetik hauxe besterik ez dut: Boterearen antidotoa izan behar du beti arrazoiak —arrazoi-menak—, haren absolutuzioa eta mitifikazioa uxatzeko. Arrazoiak askatu, liberatu beharra daude honetan, botereak ezarri nahi dituen manipulazioak.

Arrazoiaren mitoa arrazionaldu beharra daukagu... Baina honetaz hurrengoan.

JAUSORO

colaboración